



**ERABAKIA, UPV/EHUko GERENTEARENA, ALDATZEKO 2019, 2020, 2021 eta 2022ko LAN ESKAINTZA PUBLIKOEN BABESEAN FUNTZIONARIO IZATEKO OHIKO PROZESUAN, MODALITATE OROKORREAN, ONARTUAK ETA BAZTERTUAK IZAN DIRENEN BEHIN BETIKO ZENBAIT ZERRENDA (UPV/EHUko GERENTEAREN 2023ko EKAINAREN 16ko ERABAKIAREN BIDEZ ONARTUTAKOAK).**

## **AURREKARIAK**

**Lehenengoa.** - 2022ko azaroaren 7an (aldez aurretik Gobernu Kontseiluan 2019, 2020, 2021 eta 2022ko lan eskaintza publikoak onartu ondoren), Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (212. zk.) argitaratu zen Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak 2022ko urriaren 20an emandako Erabakia, horren bidez agindua eman baitzuen 2019, 2020, 2021 eta 2022ko lan eskaintza publikoko oinarri orokorrak argitaratzeko, bai karrerako funtzioen eskaintzakoak, bai lan kontratudunenak, bai barne promoziokoak, eta erabakiaren I. eranskinean jasota daude lan kontratudunen oinarri orokorrak, eta II. eranskinean, funtzionarioenak.

**Bigarrena.** - Oinarri orokorretako 5.1 atalak dio: *Oinarri orokor hauetatik sortutako deialdi espezifikoetan parte hartzeko eskariak hogeit (20) egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira, deialdi espezifikoak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean kontatzen hasita.*

Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak 2022ko urriaren 20an emandako erabakiaren bidez, agindua eman zuen argitaratzeko administrazio eta zerbitzuetako karrerako funtzionarioen eskaletan sartzeko ohiko prozesuetako oinarri espezifikoak (2022ko abenduaren 22ko EHAA, 243. zk.), eta eskariak aurkezteko epea ireki zen: 2023ko urtarrilaren 9tik 30era.

**Hirugarrena.** - Euskal Herriko Unibertsitateko gerenteak 2023ko ekainaren 16an emandako Erabakiaren bidez, funtzionario izateko ohiko prozesuan onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartu zen ([www.ehu.eus](http://www.ehu.eus) webgunean eta UPV/EHUko Lan Eskaintzen Atarian argitaratu zen). Erabaki horren kontra aukerako berraztertze errekurtsua jartzeko aukera zegoen hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua administrazio auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean. Epeak erabakian bertan adierazitako lekuetan argitaratu eta biharamunean hasten ziren kontatzen.

**Laugarrena.** - Aurreko atalean adierazitako erabakia argitaratu ondoren, ikusi da akats informatikoa egon dela zenbait deialdi espezifikotako titulazioak edo betebeharrak espezifikoak kudeatzean, eta, ondorioz, onartu behar ez ziren hogeita zortzi eskari onartu ziren, egiaztatu baita espedientean ez daukatela deialdian parte hartzeko beharrezkoa den titulaziorik edo ez dituztela betetzen betebeharrak espezifikoak, kasuan kasuko deialdiko oinarri espezifikoetan zehaztutakoak.

**Bosgarrena.** - Bestalde, interesdunekin hitz egin ondoren, ikusi da hiru eskariren espedienteetan ez dela zuzen kudeatu deialdi espezifikoaren arabera prozesuan parte



hartzeko aurkeztutako dokumentazioa, eta, ondorioz, hautagai horiek bidegabe kanporatu zirela prozesuetatik.

**Seigarrena.-** - Gerenteak 2023ko ekainaren 16an emandako Erabakiaren kontra (erabaki horren bidez onartu zen funtzionario izateko ohiko prozesuan, modalitate orokorrean, onartukoaren eta baztertutakoaren behin betiko zerrenda) zenbait berraztertze errekurtsio aurkeztu dira, hainbat deialdi espezifikotan, eta errekurtsioak eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, horietako hamahiru onetsi egin dira. Horrela, bada, hamahiru horiek onartuak izan dira kasuan kasuko hautaketa prozesuan, eta banan-banan eman zaie horren berri.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**Lehenengoa.** - Kasu honetan ezartzekoa da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea (39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak) eta honakoa dio 109.2 artikuluan: ***Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.***

Aurrekarien atalean azaldu bezala, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda aldatzeko proposamenak oinarri dauka espedienteko dokumentazio oker kudeatu izana, eta horren ondorioz hautagai batzuk onartu egin zirela prozesuan parte hartu ahal izateko oinarri espezifikotan zehaztutako titulazioa izan gabe edo baldintzak bete gabe, eta, aldiz, beste hautagai batzuk baztertu egin zirela oinarri espezifikotako baldintzak beteta eta egiaztatuta izan arren.

Hori guztia kontuan hartuta, deialdiaren arauari jarraituz, eta UPV/EHUko errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko Erabakiak eman dizkidan eskumenak erabiliz (gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko eta eskumenak eskuordetzeko erabakia, 2021eko otsailaren 12ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria), nik, gerenteak, honako hau

## ERABAKI DUT

**Lehenengoa.** - ZUZENTZEA egitatezko errakuntzak, 2019, 2020, 2021 eta 2022ko lan eskaintza publikoen babesean funtzionario izateko ohiko prozesuan, modalitate orokorrean, onartutako eta baztertutako behin betiko zerrendetan egindakoak, hain zuen ere, eskala hauetako zerrendetan:

- Gestioko teknikarien eskala Orokorra (A taldea)
- Gestioko teknikarien eskala Zuzenbidea (A taldea)
- Gestioko teknikarien eskala Ekonomia (A taldea)
- Gestioko teknikarien eskala Psikologia (A taldea)



- Unibertsitate gestioko eskala Orokorra (B taldea)
- Unibertsitate gestioko eskala Enpresa zientziak (B taldea)
- Unibertsitate gestioko eskala Erizaintza (B taldea)
- Artxibo, biblioteca eta museoetako laguntzaileen eskala (B taldea)
- Administratzaileen eskala (C taldea)
- Administrari laguntzaileen eskala (D taldea)

**Bigarrena:** Egindako zuzenketen ondorioz, eta kasu bakoitzean emandako arrazoiengatik, eranskinean jasotako hautagaiak ONARTZEA EDO BAZTERTZEA kasuan kasuko hautaketa prozesuetan.

**Hirugarrena.** - ALDATZEA onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrendak ondorengo prozesuetan: Gestioko teknikarien eskala - Zuzenbidea (A taldea); Administrariak (C taldea), Administrari laguntzaileak (D taldea) eta Menpekoak (E taldea). Aldaketen ondorioz onartuak izango dira eranskinean jasotako hautagaiak, onetsi egin baitira gerenteak 2023ko ekainaren 16an emandako Erabakiaren kontra jarri zituzten berraztertze errekurtsioak.

**Laugarrena.** - AGINDUA ematea erabaki hau argitaratzeko [www.ehu.eus](http://www.ehu.eus) webgunean eta UPV/EHUren Lan Eskaintzen Atarian.

Miren Lorea Bilbao Arteche  
UPV/EHUko gerentea